

Bezeroekiko harremana:

Bezeroekiko harremana aplikazioaren bidez lortuko dugu. Aurretik esan dugun bezala sare sozialen bidez erakarriko ditugu bezeroak eta gero aplikazioan eskuragarri egongo den email baten bidez izan ditzaketen galderak galdetzeko aukera izango dute. Horretarako gure enpresan arduradun berezi bat egongo da bezeroekin harreman gertuagoa izateko eta gainera aplikazioaren bidez bezeroek haien hobekuntza proposamenak helarazi ahalko dizkigute. Horrez gain, hilabetero inkesta bat bidaliko diegu balorazio bat egin dezaten. Horrela, haietaz kezkatzen garela ikusiko dute eta eroso sentitzen badira gure enpresarekiko leialagoak izango dira.

Esandako guztia bete ahal izateko, argi dago bezeroak harpidetu beharko direla beraien zenbait datu emanaz (izen-abizenak, email-a, telefono zenbakia...). Horren bidez aipatutako inkestak bidaltzeaz gain bezeroekiko harreman gertuagoa lortuko dugu eta gure zerbitzuaren berrikuntza guztien berri izateko aukera izango dute.

Gainera, harreman zuzenagoa lortu ahal izateko, aplikazioan bertan leku berezi bat egongo da bertatik hitz egin eta zuzenean gurekin harremanetan jartzeko. Hau da; pantailaren eskina batean bokadilo (komikien antzera) itxurako botoi antzeko bat egongo da, bertatik zerbait idatzi eta zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango dira.

Hori gutxi balitz, ahal ditugun sare sozial guztietan arituko gara. Horrela, gure aplikazioa ezagutarazi ahal izango dugu. Gainera, gaur egungo influencer, aktore famatu eta abeslariekin jarriko gara kontaktuan kolaborazioak egin ahal izateko. Sozializazio kanpaina handia egitea aurreikusten dugu jendeak gure aplikazioa ezagut dezan.